

# SANTIAGO APOSTOLUA EUSKALERRIAN

Aita Onaindia

Santiago Apostolua, jñolz egona ete Espainia'n? Gauzak zearo ta erroz aztertu nai ditugun garai oneitan ez da errez bailez esatea. Iakin-tazko axtarrenik ezta jñon agiri beintzat; elezarrak eta aurretikoak esandako gabiltz onetan, illunpetik ezin irtenda, ta aurrerantzean be onela bearko onezkerro, len-kondairako orrialdeetan zail baita argia egitea.

Erdi-sroko liburu zarrak dirauskuenez, errromatar bideak zear, Ebro'ko ta Duero'ko zelai-alorretan, galiziar ibar zabaletan ibilli yakun Santiago apostolua, Kristo'ren irakasi zabalitzaille zintzo beti. Baiña edestian barrenago jo ezkerro, amar bat gizaldiko ilusioa beteteko baririk ez dzuakagu. Espainia —ta Euskalerrria be bi, Náparroa ta Araba batez be— errromatarra zabalduko bide nakaiz ornidua genduan gara artan; eta bide orreitan zear epe laburrez arlo andia ibilli zekean. Gaur, baiña, askok diñoe ta egia dirudi epe ain estuan sarkaldetik orduan ezagun ziran lurrade onein azkenetan eltxea etzala txit erreza. Santiago'k guztiz be bideratzat izan ebazan ibillaldi luzeok egiteko; 42'garren urteruntz Jerusalén'en aurkitzen zan. Erodes Agripa'k, judarral eder egin nairik, burua ebagi eutsancan.

Gerora, bein baiña gelagotan agertu izan ei zan Santiago espainiar lurradeetan, moruen kontrako

burrukaldietan atan be. Eta bein, ele zarrak diñoskunez, geure Euskalerrria. Or dogu Klabijo, Logroño'rik 13 kilometrora, Ribafretxa ta Leza ibaitik aldatz-goran, 375 arima ditun erritxoa. Bederatxigarren gizaldian an gertatu zan guda-burruka baten oroztua oraintxe be, ortero, jente mordoak igon oj dau erri aldaatsu astara, ta batez be antzina baten guda-zelai izan zan Laturtze mendira.

Egia naiz guzur, onela esan oj da. Kordoba'ko emir zan Abderraman II'garrenak, an IX'garren eunkian, Asturias'ko errege Mauregato'k beñola aginduriko eun neskatz-zerga eskatu cutson Ramiro ango erregeari. Onek ez eutsan emon nai izan, eta ortik sortu zan burruka latza moruen eta kristauen artean. Errito'n izan ziran erasoaldirik gogorrak, Naxeta ta Kalahorra bitartean bereziki. Lenengo burrukaldietan kristauak galdu eben, eta gau baten oneik, aul ta armin, mendiz ta zugatzez inguraturiko Klabijo erritxora baztertu ziran. Gabaz, amesetan, Santiago apostolua agertu yakon Ramiro erregeari, berberak lagunduko eutsola-ta, morusi zan ta muin erasoteko esanik. Orreka egin eben kristiñauak utrengu egunean, eta latz bai latz burrukatzen zirala Santiago agertu yaken zaldi zuri gainean, ikurrin zuria eskuian ebalarik. Irurogel milla morutik gora jausi ziran egun atan.

Onagio aoz-ao edestu izan dan kontakizuna. Egia ete? Or untzea. Masdeu'k amsortzigarren eunkian eta gero beste kondairazale askok ez dawkie egitzat burrukaldi ori, eta orren ostean Ramiro erregeak eginko Santiago-Eskintza be. Egia ba'litz, ala be, Santiago euskal lurrean egona genduke.

Baiña guzti au, Santiago Espainia'ra etorri zala, Klabijo'n burruka bat izan zala ta gañerako kontakizun danak guzurrak ba'litzaz be, Santiago'k ba-dau gure erriaz zer-ikusita ar-emon andi betea. Zeinbat gizaldiz Europa orotik Kompostela'ra erromes Joan diranak milloika izan dira. Eta erromes gelenok Euskalerrrik igo dira, arako bidean: nataezkoan zan Europa'tik etozanentzat Jaka, Luzalde, Dantxarinea ta Irun'go bidea. Muga orreitan oñak jarri orduko be Euskalerrrian egozan, eta gero Iuzaroan ekin bear euskal astintzen, Gipuzkoa'tik, Bizkaia'tik, Náparroa'tik, Errioxa'tik, Araba'tik zear, Burgos lurradeetara jo arte. Bidaldi au, ba, gelenik onela egin oj eben: Jaka-Puentelarreina, Orreaga-Iruña-Puentelarreina, Lizarra (Estella), Logroño, Naxera, Santo Domingo, Burgos; Dantxarinea ta Irun'dik etozanak, barriz, batzuk Gipuzkoa'tik, Araba'tik zear Burgos'era joiztan, beste batzuk Gipuzkoa'tik, Bizkaia'tik, Orduña'tik zear Burgos'era. Eta, gero, Silos ikuskatu ondoren, Fromista'tik, Sahagun'dik, León'dik, Astorga'tik, Ponferrada'tik, Lugo'tik zear Kompostela'ra. Au zan erromesen txango-amsia, Itzulia be, sarrien, bide ortatik burutzen eben.

Beraz, argi dago, gure lurra oso osoan Santiago'ra joan-otorria egiten ebanen lorratz eta arnasaz ase-tua dogu. Emen diraue oraindik areaintzat orduan jasoriko gaxotegi ta etxeak: Jaka'tik eta Larzai'dik etozanak an ebezam Sangotza'n, Orreaga'n, Erro'n, Zubiria'n, Larrasoa-

na'n, Iruña'n, Puentelarreina'n, Lizarra'n etxe ederrak; baita Errixa'n be, Kalahorra'n, Klabijo'n, Naxera'n, Jubera'n, Santo Domingo'n; eta Gipuzkoa'n, Ondarrabi'n, Lezo'n, Donostia'n Tolosa'n; eta Bizkaia'n, Zenarrutza'n, Bilbao'n, Orduña'n. Gure errilak etzitun ez txario artu Santiago'ra joiztan bidazi fedetsu orreik, naiz-ta eurok beti —Liber Sancti Jacobi idatziz eban Aymeri Picard prantsez erromesak, XII'garren gizaldian, esaterako— ongille oneikanako esker ona erakusti ez.

Eta ez ordun bakarrik, gaur be oso biotz zabal agertzen da Euskalerrria Santiago maite dabenakaz. Aurtengo urte santuan asko dira, bai bakarrik bai taldeka, emendik zear Santiago'ra joan diranak eta doaztanak. Eta aspaldiko egunetan lez, orain ara doaztanai txera ona egiaz, iñolizkorik adeitu ta biotz-zabalen agertu gara, kistar iokarriz mundu zahalekoak alkar orapillotuz.

Egunokaz emen Bizkaia'tik, batzuk Durango'tik eta Zornotza'tik zear, beste batzuk Markina'tik eta Gernika'tik zear, pelegrino-talde ugari eldu dira Bilbao'ra: Europa Bilbao'n egoala esan dabe emengo izparrin-giak. Emen ziran, izan be, Iberri arteko alkarte «Pax Christi» deritxonean izena emonda dagozanen talde batzuk. Mundu osoko joan-otorria egin nairik. Bilbao'tik —emen bai dawkie gaur goterkiko eliz nagusia, antxiña-antsinatik Santiago'ri eskiña— igaro nai dabe. Ta ementxe dira egun batzuetan, bertoko edertasunez ta jenteen txera maitekorrez gantzasetu gurarik. Apaiz ta erri-gizon, gazte ta zar, Europa'tik nazio guztiakosak hzpatu dira Bilbao'n Santiago Apostolua oinetan eta Begoña'ko Amaren surrean, euren gorputz-arimak arnas-inder barriz kemendu egilean. Ondoren, Orduña'tik zear, Burgos'era bidea artu dabe.

Euskalerrrian, orrez gainetara, alibat eleiza ditu Santiago'k: amazortzi bere izeneko, Araba'n bakar-bakarrik. Eta Bizkaia'n, eta Gipuzkoa'n eta Náparroa'n, eta Zuberoa'n eta Lapurdi'n? Ezta bazterrik gure artean «strumol-semeari» eskiña bakarrik. Gure antxiñako fede-arbillak ditugu oneik, zutik eta ñirñulari oindio be. Eleiz-torre orreitako kanpsia, naiz txiki naiz andi, durundo gozoz diardue orsindik Galizia'ra doszan oñezko bai tarrantazko erromesai, Goian izarra, beisan kanpia biderakusle zangar, ezin iñolaz be bidsztirik galdu.

Bide-autsak arrotuz emendik zabiliz europar erromes: etsai orotik zaindu zaizala Apostolu doneak. Gorputz eta arimasko, osasuna ta bakesa opa dautzudaz; barnetik Jaiakoa, kanporik aingeruen egoitsa; barne-bidez ta landa-bidez mugia bardinera zoso: Jaiakosgana. Bide orreitan zear, euskal biotz-kerizpean emon dozu unetxo bat; une onen beroa izan bekizu luzezko arnasgarri. Gure lurretik urtetean esan egiz: «Eskerrik asko». Kompostela'ra ostean, barriz emendik igarotzean, esalzu: «Maiti zaitut». Eta, azkenetik, txango fedetsua amaitu ta sukaldet beroan, zeuretarrakaz batera, oroi bikainez gozartzear, esan oraindik be: «Eder zaitut». Giza-biotzak, bida, esker ona zordau.

## sendoa...

**TXEBARRIA'tar JUAN ANGEL**

dun. Gasteroko krisis aundia berriñten. Indar berrisk, ibilibide ezezagunak eta a somatu oñ dira-ta.

Erromatarra Britania'ko erria menpezebiltzan. Lur-bazterreko erri txiroa ezi aundieta zun iriak. Britandar adoretsu jakitez jokatu zuten, gauzak bear bezala. Ta on zebiltzan, zar gordiñak eta gazte rako gertatze-lanetan. Alako baten, Tadakigu, Kalgako izeneko batek (gudori-ularsua bera) bere erkideai ola asten terreko ta askatasun-agunterriko azkenen-aztertuta ta ospeagondik urrun egoteak nio... Ta olako beste izketa-modu zen-tatzen ditu Kalgako'k bere erritarrak, dako. Axe bai ezinegora ta urduritasuna! Bizi-aldiaren goraberak andiak eta uste-n dira askotan.

roia-aldetik zetoztenean, ezbear eta es- n ikusi zuten bereen burua. Tantae molis condere gentem! Baiña, etsuten ait errez i-indor batek bulzata, iritsi ziran azke-ets-errira. Etsuten gidsari makala, alajai! Ekaitz-osteak, danak lur jota zeudela, ingentibus aeger spem cultu simulat', poema zoragarri. Ta azken aotku be-n die bere zoritzarkide gizajoz biotz on Forson et haec olim meminisse juvabit". net rebus servate secundis" (Ae-1, 207), a zaudete gertu ereti ona datorreneko".

rra-aldetik zetoztenean, ezbear eta es- n ikusi zuten bereen burua. Tantae molis condere gentem! Baiña, etsuten ait errez i-indor batek bulzata, iritsi ziran azke-ets-errira. Etsuten gidsari makala, alajai! Ekaitz-osteak, danak lur jota zeudela, ingentibus aeger spem cultu simulat', poema zoragarri. Ta azken aotku be-n die bere zoritzarkide gizajoz biotz on Forson et haec olim meminisse juvabit". net rebus servate secundis" (Ae-1, 207), a zaudete gertu ereti ona datorreneko".

**ARRAZADITAR J. M.**

Era guzietako seguroak

Barzelona'ko

«LA CATALANA»

Segurostako ordezkarria

Gipuzkoen

S. Marcial, 33 entlo.

Urrutizketa 19226

DONOSTIA

**Papeles Pintados y Pinturas, S. L.**

Etxekoandre: Zure etxea pintatzea ala enpapelatzea erabaki baño len, atoz guregan. Eskerrak emango dizkiguzu.

Iparragirre, 8-bean

Urrut. 19605 - 21075

**D O N O S T I A**